

## — ¡ A T O Z ! —



Mendiyan negon,  
 Illargia zan,  
 Etzan ezercho entzuten:  
 Bakar bakarrik  
 Aur baten boza  
 —¡Atoz!—zuela esaten;  
 Ezautu nuen  
 Eta inola ez!....  
 Zeruetatik zetorren!  
 . . . . .  
 —¡Bai nere neska!  
 Eranzun nion,  
 Ai naiz, ai naiz alderatzen;  
 Zu gabetanik  
 Naizan ezkeron  
 Beti egunak kontatzen  
 Bat guchiago....  
 Bat guchiago....  
 Esanaz nau loak artzen!  
 Ichogon zazu;  
 Zuregatikan  
 Naizanian Zeruratzen,  
 Biok oraindik  
 Biziko gera  
 Gure Jesús adoratzen!

ANTONIO ARZÁC.

